

SUBEA ETA CHORIKUMEAK.¹

Arbol baten adarran
 kabicho bat zeguen,
 zeñaz bertan bi edo
 iru ume zeuden...
 Sube bat kurpildurik
 arbolen gerriyan,
 choriyak achitzeko
 jarri zan abiyen;
 zezazkiyen gustora
 zeuden guztiyak jan,
 eta tripa beterik
 bestera andik joan;
 baña luze egonik
 adarran kabiya,
 eziñ irichirikan
 erori zan iya;
 alaz guztiz naiz arki

neke aundiyakin,
 sayatu zan berriro,
 indar denarekiñ;
 baña iya irichi
 zubenian eran,
 chori guztiyak ziran
 igasi joan egan.

.
 Gauzak ustez seguru
 izaten dirade,
 subeari bezela
 iñoiz guri ere;
 eta nai degunian
 joan ta egin jabe,
 nekatu ta gelditzen
 gera ezer gabe.

JOSÉ ARTOLA.

(1) Fábula premiada con *mencion honorífica* en los fuegos florales celebrados en esta Ciudad en 1888. (Véase pág. 567 del tomo XIX.)